

BERTSO BARIJAK

Euzkeldun batek jarriak

Sasijak sortzen dira
Solo ederetan,
Nekazari alpeñak
Ba-dabiltz euren,
Eta gauza onari
Itxi ez erretan.
Irudi auxa dogu
Euzkadi onetan.

Batzuk dira zurijak,
Beste batzuk baltzak,
Danok be alkarrenak
Bai-daukiez antzak.
Ganetik lora ederr,
Azpitik arantzak.
Ikaratute nauke
Oingo aldakuntzak.

Karlista ta liberal
Lenau alkar ilten,
Odol-erokartian
Zirian ibiltan.
Masoyak zirala-ta,
Eutsien ekiten,
Ta oin bijak alkar
Dautse lagun-eiten.

Euzkeleriko gure
Foru zaren alde
Ebiltzazalakuan
Egunez ta gabez,
Amaikatu euzkeldun
Atzipetu (1) dabez
Bastarak ondatuten
Ibili diradez.

España baño Euzkadi
Milak urtegiño
Zafau ixanda umetzat
Daukie ondiño.
Nik eztot ikusi, ba,
Orain-arteraño
Alaba zaragorik
Beren ama baño.

Gixonak eztau biar
Itz (2) onik ukatu.
Guzur ean baño len
Ixilik geratu.
Ekandu txarrik itxi
Ta onai oratu
Gura dabenak egiz
Euzkadi goratu.

Len euzkeldun karlista
Zintzuak ziranak
Euzko-abertzaletu
Ein ziran geyenak,
Ta guk anai-artera
Etorren diranak
Besuak zabaldurik.....
Artzen doguz danak

Euzkotar izan gaizan
Bijotz, gogo ta adin:
Itzez abertzaliak (3)
Eikerakaz bardin,
Izan zan legez gure
Irakasle Sabin,
Nai bogu zorijona
Jaritxi Euzkadi'n.

(1) *Atzipetu* - engañau. (2) *Itz* - berba. (3) *abertzaliak* - abefi edo efi-zaliak.

